

OHI KANPOKO OSOKO BILKURA 09/12

UDALAK 2012ko IRAILAREN 25EAN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M^a Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sánchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Juan Antonio Cuesta Solé jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko irailaren 25ean ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

INFORMATIKA TEKNIKARIA:

Jose Ramón Etxaniz Gesalaga jn.

KONTUHARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

Alkate jaunak proposatuta, aztergaien zerrendaren ordena aldatzea erabaki da aho batez. Hala, 4. puntua aztertu da lehenik.

4.- 2012KO URRIAREN 21EKO HAUTESKUN-DEETARAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEA. – 2012ko urriaren 21ean izango diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hauteskunde-mahaietako kideak prozedura informatiko bidez arautzeko zozketa egin da.

1.- AKTA ONARTZEA: 2011--07-24. - 2012ko uztailaren 24an egindako bileraren akta onartu da. Baina aldaketa bat eginda 12. puntuan (“Ereñotzuko Toki Entitate Txikiari egin beharreko ekarpen arrunta erregulatzeko proposamena, udal finantzaketarako foru funtsaren (UFFF) udal partaidetzan desbideraketarik gertatuz gero”).

Azalpen zatiaren 3. puntuko esaldiari hau gaineratu behar zaio, nahi gabe jarri gabe geratu baitzen:

izenpetu beharko du Hernaniko Udalarekin.

2.- 2012KO UZTAILAREN 21ETIK 2012KO IRAILAREN 20RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko ekainaren 18tik 2012ko uztailaren 20ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- ALKATETZAK 2012KO IRAILAREN 21EAN EMANDAKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA. EBAZPEN HORIEK BI ZINEGOTZIREN DEDIKAZIO ERREGIMENAREN ALDAKETARI BURUZKOAK DIRA. - Udalbatza alkatez 2012ko irailean hartutako bi ebazpen hauen jakinaren gainean dago:

“DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamabiko irailaren hogeita batean.

Hernaniko Udalaren 2012ko Aurrekontua gauzatzeko oinarrien 11. oinarria ikusita,

Eta eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

1.- Iker Goenaga Gubia zinegotziari %30eko arduraldia ematea, urteko soldata gordina: 8.773,80 euro, 14 hilerokotan jasotzeko 2012ko urriaren 1etik hasita.

2.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Iker Goenaga Gubia jaunaren afiliazioa eta alta eskatzea. Udalak hartuko ditu beregain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrak enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak.”

“DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamabiko irailaren hogeita batean.

2011ko ekainaren 15ko Ebazpen bidez Idurre Conde Santa Cruz zinegotzi kargua arduraldi partzialean betetzeko izendatu zen (%50eko arduraldia, 10.650,00 euroko urteko soldata gordina, 14 hilerokotan jasotzekoa).

2011ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran onartu zen kargua dedikazio partzialarekin betetzen duten Udalbatzako kideak 29.245,86 euroko urteko soldata gordina izatea dedikazio portzentaiarekiko.

Zerbitzuaren beharrak kontutan izanik eta eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Idurre Conde Santa Cruz zinegotziari arduraldia %20ra murriztea, urteko soldata gordina: 5.849,20 euro, 14 hilerokotan jasotzeko 2012ko urriaren 1etik hasita."

5.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 3/2012 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN GAIKUNTZA BIDEZKOA). - Alkatetzak 2012ko irailaren 5ean emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **3/2012** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2012ko aurrekontuaren kredituen gaikuntza bidezkoa. Kopurua: **86.860,60 euro**.

6.- HERNANIKO UDALAREN 4/2012 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA (KREDITUAREN GAIKUNTZA BIDEZKOA). - Hernaniko Udalaren 2012ko aurrekontuaren barnean kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den **4/2012** kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu.

Espedienteko egoera orrisan biltzen diren eta espero zirenen gainetik jaso diren sarrera berriak edo handiagoak, hain zuzen, aplikagarria den foru araudian espreski zerrendatu dira, eta espedientean proposatutako gastu gehikuntza oso-osorik finantzatzen dute.

Halaber, Fondoek Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Aztertu da ogasun eta Ondare-Kontuetarako Batzorde Bereziak Batzordeak 2012ko irailaren 20an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Hernaniko Udalaren Aurrekontu kreditu gai-kuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako **4/2012** espedientea onestea, **15.437 euroko** zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orrian ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoek Kontu-hartzaileak Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea.

7.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN ZUZENKETA 2011KO ABENDUAK 31KO ONDORIOEKIN (2007-2011). - Udal Ondasunen Inbentarioa 2005eko irailaren 29ko Udal Batzarrak osatu eta onartu zen lehen aldiz, 2004ko abenduaren 31ek ondorioekin.

2007ko maiatzaren 15eko Udal Batzarrak Udal Ondasunen zuzenketa onartu zuen 2006ko abenduaren 31eko ondorioekin, geroztik ez da zuzenketa gehiago onartu.

Legearen arabera Toki Erakundeek euren ondasun eta eskubideen inbentarioa osatzeko betebeharra daukate eta hori urtero zuzendu edo eguneratu dutenez.

Kontratazio eta Ondare Saileko Teknikariak, Baraibar andreak, 2012ko irailaren 18an egindako txostena aztertu da

Kontu-hartzaileak Inbentario kontablearen koadro-laburpen ekonomikoa ere egin du.

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetaarako Batzorde bereziak 2012ko irailaren 20ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1. Udal Ondasunen zuzenketa onartzea 2011ko abenduaren 31ean, 101.991.966,98 €-ko balioarekin

| | |
|---------------------------------|------------------------|
| Higiezinak eta azpiegiturak | 79.893.897,23 € |
| Eskubide errealak | 1.897.310,43 € |
| Higigarri historiko-artistikoak | 19.490,06 € |
| Balore higigarriak | 1.762.032,29 € |
| Ibilgailuak | 167.573,64 € |
| Azienda | - € |
| Altzari eta tresnak | 2.086.202,29 € |
| Guztira | 85.826.505,94 € |

2. Zuzenketaren kopia Estatuko eta Erkidegoko Administrazioei bildatzea

8.- BATZORDE INFORMATZAILEETAN ALDERDI SOZIALISTAREN ORDEZKARI IZANGO DIREN BATZORDEKIDEEN BERRI EMATEA. - Udalbatzak jakin du zein zinegotzi izango diren Alderdi Sozialistaren ordezkari Batzorde Informatzaileetan.

Zerbitzu Publikoa:

Titularra: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Ordezkoa: Maria Jesús Egido Moreno.

Kultura:

Titularra: Estefanía Morcillo Cerdan.

Ordezkoa: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Personala:

Titularra: Maria Jesús Egido Moreno.

Ordezkoa: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Hezkuntza:

Titularra: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Ordezkoa: Maria Jesús Egido Moreno.

Hernani Partehartzea:

Titularra: Maria Jesús Egido Moreno.

Ordezkoa: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Euskera:

Titularra: Estefanía Morcillo Cerdan.

Ordezkoa: Maria Jesús Egido Moreno.

Política Soziala:

Titularra: Estefanía Morcillo Cerdan.

Ordezkoa: Maria Jesús Egido Moreno.

Giza Eskubideak:

Titularra: Estefanía Morcillo Cerdán,

Ordezkoa: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Kirola:

Titularra: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Ordezkoa: Estefanía Morcillo Cerdán,.

Hirgintza:

Titularra: Estefanía Morcillo Cerdán,

Ordezkoa: Jose Antonio Sánchez Almaraz.

Ogasun eta Ondare:

Titularra: Estefanía Morcillo Cerdán.

Ordezkoa: Maria Jesús Egido Moreno.

9.- PERTSONALEKO BATZORDE INFORMATZAILEAN BILDUREN ORDEZKARI DIREN BATZORDEKIDEEN ALDAKETEN BERRI EMATEA. - Udaltzaker jakin du Gloria Mendinueta Yeregik Aitor Miner Aguinaga ordezkatu behar duela Bilduren izenean Pertsonal batzordeko bokal titular gisa.

10.- BILDUK OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUKO ZUZENDARITZA BATZORDEAN DUEN ORDEZKARIA ALDATZEA. - Bilduk proposaturik, Asier San Emeterio Otegi izendatu da, Nahiara Sanchiz Arregiren ordezkari, Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udaltzaker Patronatuko Zuzendaritza batzordeko bokal.

11.- KUTXARAKO KONTSEILARIAK IZENDATZEA. - Bilduk proposaturik, eta bozketan EAJ/PNV, Euskal Sozialistak eta H1! alderdietako zinegotziak abstenitu direlarik, hau erabaki da:

Aitor Miner Aguinaga izendatzea Hernaniko Udaltzeren izenean Gipuzkoa Donostia Kutxako kontseilari nagusi kargua betetzeko.

12.- 2012KO UZTAILAREN 24AN EMANDAKO AKORDIOAREN ZUZENKETA "UDALTZEREN 2012KO PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA". - Aztertu da Pertsonal batzordeak 2012ko irailaren 20an emandako irizpena.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

Pertsonal batzordean ez zen proposamena bozkatu eta irizpenak dio aho batez onartu zela, beraz, irizpena zuzendu egin behar da.

Harritu egiten gaitu gobernu taldeak sortu duen lanpostu bati, berak izendatu duelarik hura beteko duen pertsona, dedikazio eskusiboko osagarria ematea, suposatzen baita guk ekartzen ditugun aholkularien lanpostuak dedikazio eskusibokoak direla.

Hori egiteko arrazoia soldata doitzea baldin bada, jar dakiola 15., 16., 17. 18. edo dagokiona, baina ez dedikazio eskusiboko osagarria.

Euskal Sozialistak taldeko Egido andreak hau esan du:

Ez zaizkigu gustatu pertsona hori aukeratzeko erabilitako moduak eta prozedura.

Gure ustez lanpostu hori Udaltzakeraren plantillan dauden pertsoneri eskaintzeko ahalegina egitea bazegoen, eta gauzak egiteko modu parte hartzaileagoa edo bidezkoagoa erabili.

Udaltzeren diru kontuak nola dauden ikusita, ez zaigu egokia iruditzen dagoeneko buru bat badaukan plantilla batean antzeko beste lanpostu bat sortzea. Diru hori bestelako gauza premiazkoagoetarako erabil zitekeen.

Alkate jaunak (Bildu) hau esan du:

Lanpostu hau sortzeko irizpideei dagokienez, horri buruzko azalpenak aurreko osoko bilkuran eman genituen. Egoera ekonomikoari dagokienez, aurreko osoko bilkuran ez ginen horretaz aritu, baina argitu

nahi dut Udaltzaingoaren plantilla berrantolatu egin dela eta, lanpostu finkoak eta orain daudenak kontuan hartuta, azken lanpostuak bete eta gero, kostu ekonomiko berberari eusten zaiola.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) galdetu du ea lanpostu honetarako aukeratutako pertsona lanean hasten denean Udaltzaingoaren plantillaren kostu ekonomikoa 2011ko bera izango ote den. Alkateak (Bildu) baietz erantzun dio.

Pertsonal batzordeak 2012ko irailaren 20an emandako irizpenaren bozketa egin da. Hau da lortutako emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- Kontrako botoak: 6 (3 Sozialistak, 2 EAJ/PNV, 1 H1!).
- Abstentzioak: bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Aztertu da Pertsonal batzordeak 2012ko otsailaren 20an emandako irizpena:

Osoko Bilkurak 2012ko uztailaren 24an Udaltzaingoaren zuzendari lanpostua sortzearekin lotuta hartutako erabakia aldatzea-zuzentzea, honela:

“Lanpostuen zerrenda” atalean, honako zehaztapen hauek sartzea:

Hizkuntza eskakizuna: 4.

Oharra: %20ko lanpostu osagarria.

13.- EREÑOTZUKO (UG)9ER.01 EREMUKO XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIAK AURKEZTUA. - Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko ekainaren 22an egindako bileran, erabaki zuen Ereñotzuko (UG)ER.01 eremuko xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea eta espedientea jendaurrean jartzea 20 egunez.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon den bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumeneko Batzordeiak 2012ko irailaren 20ean emandako irizpena.

Sozialista taldearen 3 zinegotzien abstentzioarekin, zera erabakitzen da:

- 1.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak aurkeztutako Xehetasun Azterlanari, Ereñotzuko (UG)ER.01 eremuko, behin betiko onarpena ematea.
- 2.- Behin betiko onartzeko erabaki hau GAOn argitaratzea.

14.- KARABELEKO (UE)PK.02 EREMUKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, UTE KARABELEK AURKEZTUA. - Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko uztailaren 13an egindako bilkuran (EU) PK.02 eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari hasierako onarpena eman ziola. Plan hori Arquitectura y Urbanismo Arkites, S.L. eta Jose M^a Abad Urruzolak prestatu zuten 2012ko ekainean eta UTE Karabelek sustatu zuen.

2012ko uztailaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela hasierako onarpenaren berri emateko iragarkia eta 20 egunez jendaurrean egon dela dokumentua.

Jendaurreko epean bost alegazio aurkeztu direla.

Bestalde, hasierako onarpena emateko akordioaren hirugarren atalak zioenari jarraikiz, txostena eskatu zitzaizela Uraren Euskal Agentziari eta Adif, Trenbide Azpiegitura Administrazioarekiko.

2012ko uztailaren 30eko data duen Uraren Euskal Agentziaren txostena espedientean jasota dagoela eta Adif, Trenbide Azpiegitura Administrazioarekiko ez duela txostenik eman legezko epean.

Kontuan harturik, alegazioei dagokienez, txosten juridikoak dioena:

Esperanza Perez Sanz-ek aurkeztutako alegazioari dagokionez: Ez da Plan Bereziaren aurrean aurkeztutako alegazio bat baizik eta plano partzelarioan jasotako jabegoei buruzko bi akats zuzentzeko eskaera.

Hortaz, aurkeztutzat ematen da akats zuzenketa idazki hau aurrerago, birpartzelatze dokumentuaren izapidetzean, kontuan hartzeko baina espediente honetako alegazio gisa ez da onartuko ez baita Plan Bereziaren zehazturiko ordenazioari buruzko alegazioa baizik eta ondorengo hirigintza kudeaketarako tresnen edukiei buruzkoa.

Jasone Usandizaga Ansa, Marta Luxan Serrano, Alberto Gil Mosquera eta Julia Casanellas Vilageliuk aurkeztutako eduki berberako banakako lau alegazioei dagokionez: Idazkian gehienbat eurak une honetan bizi diren eraikinak botako direla eta realojoa eskatzen dute eta obraren gauzatze epeei buruzko informazioa eskatzen dute.

Honi dagokionez, esan behar da hau ez dela alegazio horiek aurkezteko unea, ez baitira Plan Bereziaren edukiei buruzko alegazioak baizik eta ondorengo hirigintza kudeaketarako tresnen edukiei buruzkoak eta beraz, ez dira alegazioak onartuko.

Espedientean jasota dagoen txosten juridikoa.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.c artikulua dioenez Udaleko Osoko Bilkura dela hirigintza planei behin betiko onarpena emateko organo eskuduna.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumeneko Batzordeak 2012ko irailaren 17an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehenena.- UTE Karabelek sustatutako (EU) PK.02 (Karabel) eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

Bigarrenena.- 2012ko uztailaren 30eko Uraren Euskal Agentziaren txostenean jasotako baldintzak betetzeko eskatzea UTE Karabel sustatzaileari.

Hirugarrenena.- Aurkeztutako alegazioak ez onartzea akordio honen esposizio atalean jasotako arrazoiengatik.

Laugarrenena.- Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistrora bidaltzea behin betikoz onartutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren dokumentua.

Bosgarrenena.- Akordio hau ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.5 artikulua dioen bezala publikatzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoan hedadura gehien duen edo duten egunkarietan.

Seigarrena.- Akordioa UTE Karabel sustatzaileari jakinaraztea eta honekin batera 2012ko uztailaren 30eko Uraren Euskal Agentziaren txostena bidaltzea.

Zazpigarrena.- Akordioa gainontzeko interesatuei jakinaraztea.

15.- HERNANIKO BAKE EPAILEA IZENDATZEA. –Alkate jaunak (Bildu) zehatz-mehatz azaldu du zein izan den egindako bide guztia bake epailearen lanpostua hutsik zegoela aditzera emanez egindako jakinarazpenetik deialdia GAOn argitaratu arte.

Egindako bide hori guztia administrazio espedientean dago jaso. Bozera maileen batzordean horren inguruko azalpenak eman ziren eta zera proposatu: Félix Javier Iradi Otaegi jauna izendatzea bake epaile titular eta Iker Mendoza Blas jauna bake epaile ordeko.

Proposamena bozkatu da, eta onartu. Hiru zinegotzi sozialistak abstenitu egin dira eta Sanchez jaunak esan du prozesuan parte hartzeko eta hautagaiak nor ziren jakiteko aukera izan nahi zutelako abstenitu direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Auzitegiko gobernu idazkariak 2012ko uztailaren 20an jakinarazi zuen Hernaniko Udalerrian ez dagoela ez bake epaile titularrik ez eta ordekorik ere.

2012ko abuztuaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (163 zk.) deialdia argitaratu zen, eta honako pertsona hauek aurkeztu ziren:

- Alex Aristeguieta Gutierrez.
- Ixiar Balda Etxarri.
- Iker Mendoza Blas.
- Itziar Elorza Zorrozueta.
- Aitor Fernandez Bravo.
- Miren Gojenola Arriaga.
- Félix Javier Iradi Otaegi.
- Malen Quiles Gonzalez.
- Alexander Silva Carmona.
- Iban Ugarte Herrarte.

Deialdira aurkeztutakoen curriculumak aztertu dira eta egokien jotako 4 lagunekin elkarrizketak egin dira. Horien emaitza gisa, proposatzen da Félix Javier Iradi Otaegi jauna eta Iker Blas Mendoza jauna izendatzea bake epaile titular eta bake epaile ordeko, hurrenez hurren.

Bozera maileen batzordeari eman zaio honen berri, 2012ko irailaren 24an izandako bileran. Izendapenen proposamenen bozketa egin delarik, hau da lortutako emaitza:

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez Udaltzako legea eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan dauden 15 zinegotzien aldeko botoarekin, hau da, udaltzako kideen kopuru legalaren gehiengo absolutuarekin.

- 1.- Félix Javier Iradi Otaegi jauna izendatzea Hernaniko Udalerriko bake epaile titular. NAN: 15978853V.
- 2.- Iker Blas Mendoza jauna izendatzea Hernaniko Udalerriko bake epaile ordeko. NAN: 72500690K.
- 3.- Badakigu interesatuek onartu dituztela proposamenak eta deklaratu dutela ez daukatela epaile kargutan aritzeko inolako ezintasun edo bateraezintasun arrazoirik.

16.- TXANTXANGORRI EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAK 2011-02-22 OSOKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOAREN SENTENTZIAREN BERRI EMATEA. - -
Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako 1. epaitegiak epaia eman du (2012ko irailak 3, 181/2012 zk.) TXANTXANGORRI EHIZA, ARRANTZA ETA TIRO ELKARTEAK jarritako errekurtsori erantzunez. Errekurtsu hori Hernaniko Udalak 2011ko apirilaren 11ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurkakoa zen.

Udalbatza epaiaren jakinaren gainean dago. Hona hemen epaia:

«FALLO

Estimo parcialmente el recurso contencioso administrativo interpuesto por la representación procesal de la Sociedad TXANTXANGORRI EHIZA ARRANTZA ETA TIRO ELKARTEA contra la actuación administrativa indicada en el encabezamiento que se declara ajustada a derecho en cuanto al pronunciamiento por el que declara «Dar por finalizada la cesión de uso de la parcela del Monte Santa Bárbara realizada por el Ayuntamiento de Hernani a la Sociedad Txantxangorri con fecha 31 de diciembre de 2012» dejando sin efecto el punto segundo, para que las determinaciones municipales sobre la puesta a disposición de la parcela se efectúen en específico procedimiento de desahucio para la recuperación del bien, una vez haya perdido efectiva vigencia el título de ocupación con audiencia del interesado para que pueda realizar las alegaciones que estime oportunas.

No se efectúa imposición de costas.»

17.- PSE-EEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HERNANIKO PSE-EE ALDERDIAREN EGOITZAKO FATXADAN AGERTU DIREN PINTADEI BURUZKOA.- Alkate-lehendakari jaunak esan du, sozialistek aurkeztutako mozioa ikusita Bilduk beste bat aurkeztu duela, eguneko aztergaien zerrendako 18. puntua, alegia, eta sozialistek mozio hori irakurtzeko dei egin die.

Morcillo andreak sozialistek aurkeztutako mozio hau irakurri du:

“JUSTIFIKAZIOA

Hernaniko PSE-EE alderdiak eskatzen du, balorazio politikoak alde batera utzita, Hernaniko Udalak eta udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek elkartasuna ager dezatela eta aho batez gaitzetsi ditzatela irailaren 8ko gauean alderdi politiko horren egoitzaren paretetan egindako pintadak.

MOZIOA

Bakarra.- Hernaniko Udaleko udalbatzak irailaren 8ko gauean Hernaniko PSE-EE alderdiaren egoitzako paretetan agertutako pintadak salatzen ditu”.

Morcillo andreak esan du mozio oso sinplea dela, eztabaida politikoetatik ihes egiten duena, eta bakearen aldeko apustua egiteko unea dela eta horrelako ekintzek zikindu egiten dutela.

Alkateak (Bildu) esan du une honetan egiten duten balorazioa dela baduela zentzurik horrelako ekintzen aurrean osoko bilkuran mozio bat aurkeztea. Hala ere, Euskal Herriak bizi duen normalizazio

prozesua baloratuz eta sozialisten mozioak bakarrik errealitate bat jasotzen duela kontuan hartuta, beraiek oztopo gehiago jaso nahi dituztela eta dena osorik hartuta baloratu nahi dutela, eta, horretarako beste mozio hau aurkeztuko dutela. Lujanbio andreak irakurri du.

18.- BILDU HERNANIK AURKEZTUTAKO MOZIOA, NORMALIZAZIO POLITIKORAKO BEHARREZKO URRATSAK.

NORMALIZAZIO POLITIKORAKO BEHARREZKO URRATSAK

Azken hilabeteotan Euskal Herrian hainbat ekimen eta gertakari bizi izan ditugu normalizazio politikorako bidean urrats garrantzitsuak direnak. Dena den, badira oraindik ere prozesu honetan lagungarriak ez diren gertaerak eta ekintzak, garai politiko berria oztopatzea helburu dutenak.

Hernanin ere, azkenaldian bizi izan ditugu eta bizitzen ari gara normalizazio politikoa eta elkarbizitzarako oztopo diren gertaerak. Batetik, pasa den irailaren 8an PSE-EEren egoitzan agertutako pintadak. Bestetik, Gari Arruarte hernaniarraren egoera, duen gaixotasun larria dela eta aske beharko lukeena eta espainiar espetxe politikak preso mantentzen duena. Era berean, *Parot doktrina* bezala ezagutzen dugunaren baitan, kalean beharko luketen bost hernaniarren kasua. Eta azkenik, azken egunotan Hernaniko 10 gazte bizitzen ari diren epaiketa politikoaren adibidea dugu.

Hau guztia kontuan harturik honako puntuak aurkezten ditugu Udal Batzarrera onartuak izan daitezen:

- 1.- Irailaren 8an, PSE-EE egoitzan agertutako pintadak salatzen ditugu.
- 2.- Preso dauden eta gaixotasun larri eta sendaezina duten presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen dugu.
- 3.- Espainiar estatuari Parot doktrina bezala ezagutzen dugunaren ezabaketa eskatzen diogu.
- 4.- Espainiar estatuari gazteen jazarpenarekin eta epaiketa politikoekin buka dezan eskatzen diogu.

Horren ondoren alkate-lehendakariak osoko bilkurara aurkeztu diren mozioen bozketa egin du. Hona hemen emaitza:

TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA

- Aldeko botoak: 6 (3 Sozialistak, 2 EAJ/PNV, 1 H1!).
- Kontrako botoak: 9 (Bildu).
- Abstentzioak: bat ere ez.

Mozioa baztertu egin da

BILDUREN MOZIOA

- Aldeko botoak: 11 (9 Bildu, 2 EAJ/PNV).
- Kontrako botoak: bat ere ez.
- Abstentzioak: 4 (3 Sozialistak, 1 H1!).

Mozioa onartu egin da

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) mozio hau irakurri du:

19.- EAJ/PNV-K AURKEZTUTAKO MOZIOA, HERNANIKO SANTA BARBARAKO HARROBIA ETA UDALERRIAN DAUDEN KOBA ETA MEATEGI GUZTIAK "ESTABILIZATUTAKO ZABOR-FARDOEN BILTEGI KONTROLATU" GISA EZ ERABILTZEKO ALDARRIKATZEA. - "2012ko ekainaren 5ean (6an), Gipuzkoako Foru aldundiko Ingurumen Diputatuak, aldi berean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzio Presidente denak, "Degradatutako guneak berritu eta berreskuratzeko estabilizatutako zabor-fardoen biltegi kontrolatuak" sortzea planteatzen zuen dokumentua aurkeztu zuen Batzar Nagusietan; 2014rako ixtea aurreikusten diren gaur egungo zabortegiak ordezkatzeko eta Gipuzkoako hiri-hondakin solidoen kudeaketa-sistemaren amaiera gisa.

"Biltegi" horietan, hondakinak aldeztu aurretik tratatu ondorengo errefusetik geratzen dena (batez ere Tratamendu Mekaniko Biologikoaren ondorengo) hau da, birziklatu ezin den eta konpostatu ezin den materiala lurperatzea aurreikusi dute. Dokumentu horretan bertan aitortzen da, lurperatzeko den material horrek "%10a baino gutxiagoko material biodegradagarri duela pisuan eta ahalik eta material birziklagarri gutxien duela".

"Abantailen" artean, dokumentuak aipatzen du LIXIBIATURIK EZ DAGOELA APENAS ETA DIODEGRADAGARRI DIRENAK DESKONPOSAKETA MOTELEKO PROZESUA DUTELA.

Dokumentuaren arabera helbururik nagusia zera da, gaur egungo zabortegiak itxi eta bigarren mailako hondakinak botatzeko gune berriak zabaltzea 3/1998 LEGEAK, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, III. IDAZPURUAN, ingurugiroan eragina duten jardueren antolamendua arautzen du. IV. KAPITULUA. Hondakinak (berria ez dena, baina gure oinarritzko legeria dena) eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak hondakinak deuseztatzeko arauak ematen dituzte, zabortegietan biltzeko eta betelanak egiteko. Legedi hori aipatzea oso larritzat jotzen dugu, zabortegi eta betelanetarako aplikatu behar den legedia denez.

49/2009 dekretuaren arabera, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratua eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenaren arabera, hondakinak lurpean edo lur azalean gordeta hondakin horiek ezabatzeko instalazioa da hondakindegia. Bigarren mailako hondakinak botatzea, izenak berak esaten duen bezala, hondakinak botatzea da. Hondakinak baldin badira, hondakinak dira era lur azalean biltzen badira, hondakindegia batean biltzen dira. Eta Europatik hondakindegia horiek ixteko epea dago.

Hori guztia ikusita, gaur egun dauden zabortegiak ixteko betelana eginez egin nahi da, eta Gipuzkoan dauden harrobi eta meategiak hondakindegia berri bihurtuz. Bartzelonako Cerdanyola del Valles herritik "inportatutako" esperientzia, zeinak gizartearen eta talde ekologisten aldetik arbuio argi eta garbia izan zuen eta duen gaur egun.

Hernanin Santa Barbarako harrobia daukagu. Diputazioaren agiriak planteatzen duena ikusita, berreskuratu beharreko degradatutako gune horien kokapena zehazten ez denez, eta esandako gune horietan hondakin-motaren bat lurperatu litekeen aukeraren aurrean, Hernaniko Udalak, honako hau.

ERABAKITZEN DU

1.- Hernaniko Santa Barbarako harrobia eta udalerrian dauden koba eta meategi guztiak «estabilizatutako zabor-fardoen biltegi kontrolatu» gisa ez erabiltzeko aldarrikatzea.

2.- Udalerrian dauden harrobi eta meategi guztiak barneratu nahiko lituzkeen Lurraldeko Plan Sektorialari dagozkion alegazio guztiak egiteko prestatu, (herrian) hondakinen isurketa eta lurperatzea ekiditea helburu.

Alkateak (Bildu) esan du kontrako botoa emango dutela. Alde batetik, ados daudelako Gipuzkoako hondakinen planarekin eta, bestetik, udalera ez delako inolako eskaerarik iritsi. Eta iristen bada, orduan aztertuko da.

Gogorarazi uda udalak harrobiko hutsunea betetzeko hitzarmen bat daukala sinatua, eta asmoa, printzipioz, betetzea dela.

Mozioa bozkatu da. Hona hemen bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (3 Sozialistak, 2 EAJ/PNV, 1 H1!).
- Kontrako botoak: 9 (Bildu).
- Abstentzioak: bat ere ez.

Mozioa baztertu egin da

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 20:25 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez.